



Espazioen alokairua eta lagapena

Abiña Auzoa z/g, 48350 Busturia, Bizkaia
T. 94 687 07 10
E. klima@bbk.eus



Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren bihotzean

BBK Klima jasangarritasuna sustatzeko BBKren proiektu berriaren giltzarria da, eta BBKren Estrategiaren eta lehiakortasun jasangarriarekin eta planetarekin duen konpromisoaren barruan kokatzen da.

BBK Klima BBK Urdaibai Zentroan jaio da eta Bizkaia osora zabaldu da. Duela 100 urte baino gehiagotik, BBK-k Lurraldearen beharriaz erantzuteko proiektuak gidatu ditu, eta gaur, berriz ere, gizateria gisa aurrean dugun erronka handienetako bati heldu dio: klima-aldaketaz kontzientziaztea, sentsibilizatzea eta horren aurka jardutea, diziplina anitzeko ikuspegitik. Hor sortu da BBK Klima, 80.000 hektareako eremu naturala eta instalazio berriak dituen proiektua, Bizkaiko herritarren ingurumen-kontzientziazioa eta -sentsibilizazioa sustatzeko eta Bizkaitik planetaren garapen jasangarrian laguntzeko.

BBK Klima bat dator Garapen Jasangarrirako Helburuekin, eta BBK-k Nazio Batuen 2030 Agendarekin, Europako Batzordearen 2050 Agendarekin eta Basque Green Dealekin duen konpromisoari erantzuten dio.



BBK Klima: Espazioen alokairua eta lagapena

klima
bbkΘ



Espazioen Alokairua

BBK Klimak gure ekosisteman sor daitezkeen beharrianak asetzera bideratutako guneak erabiltzeko bi modalitate ezberdin aurkezten ditu.

1. Ekitaldietarako guneak erabiltzea BBK

Kliman:

Klimaterpe: Erabilera anitzeko eraikina eta Kanpoko guneak

Barrualdeak eta kanpoaldeak mugatuta daude, eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren bista ikusgarrietara orientatuta. Enpresa-ekitaldiak, aurkezpenak, jardunaldiak edo hitzaldi-zikloak eta abar hartzeko erabat prestatutako guneak dira.

2. Klima gela korporatiboak:

Eraikin Nagusia

Bizkaiko jasangarritasunaren ekosistemako eragile askorekin lotura duen leku pribilegiatu bat bilatzen duten proiektu ekintzaileak eta enpresak hartzeko lan-guneak. Banakako lana, talde-lana, bilerak, jateko guneak eta abar ahalbidetzeko tresnatutako aretoak.



BBK Klima: Espazioen alokairua eta lagapena



klima
bbk

BBK Klima Ekitaldiak

BBK Klima: Espazioen alokairua eta lagapena



Klimaterpe: Erabilera anitzeko gunea

Urdaibairen bihotzean dagoen erabilera anitzeko eraikina, naturarekin berriz konektatzeko eta klima-aldaketarekin zerikusia duen guztia ikasteko aterpe edo babesleku handia.

Espazio ireki eta gardena da, pasealekurako zuzeneko sarbidearekin, itsasoari begira dago eta gastrobarrera, ataripera eta biltegia zuzenean konektatuta.

Barnealdeak lerro organikoak ditu, eta naturagune batean sentitzera gonbidatzen gaitu; argiztapen moldakorra du forma leun horiekin bat datorrena.

Toki honek pista eta eszenatokia ditu erdiko gunean, LED pantaila handi batez inguratua, hor ikuskizunak, ekitaldiak, emanaldiak, hitzaldiak... eta mota askotako jardunaldi, tailer, bilera edo aurkezpenak ahalbidetzen ditu. Gainera, harmailak eta eserlekuak ere baditu, jendea eroso egoteko.

Tokia osatzeko, sistema eta kontrol tekniko gela bat eta harerra-gunea daude.

Tokia gela desberdinetan banatzeko aukera dago. Espazioa antolatzeko eta nahi den giroa sortzeko balio duten altzari-elementuak jarri dira.



klima
bbk

Kokapena
Ubicación
Location
Emplacement

0


Edukiera
Aforo
Capacity
Capacité

260

Azalera
Superficie
Surface area
Superficie

130_{m2}

Baliabideak
Recursos
Resources
Moyens disponibles





Lekua banatzeko aukerak eta edukierak

Antzoki moduan

 40 har-
mailetan +  120
eserita

Tailer moduan


 15 mahai
90 aulki

Ikasgela moduan

180 aulki


Zutik (edukiera osoa)

 260 pertsona





"Berdinaldia" ekitaldia · Eusko Jaurlaritz

BBK Klima: Espazioen alokairua eta lagapena



DOMO

Domo geodesikoa erabileran anitzeko eraikinaren barruan dago, eta ikus-entzunezko murgiltze-esperientzia sortzen du bere kupula erdiesferikoan 360°ko proiektioei eta bibrazio-sisterei esker, esperientzia sentsorial handia lortuz.

Murgiltze-esperientziaren eraikuntza bera da iraunkortasun-mezuaren protagonista, eraikuntza-prozesuan lehenetara eman baitzaio beharrezko baliabideek ahalik eta ingurumen-inpaktu txikiena izateari.

| Kokapena | Azalera | Edukiera |
|-------------|--------------|----------|
| Ubicación | Superficie | Aforo |
| Location | Surface area | Capacity |
| Emplacement | Superficie | Capacité |

0

52_{m2}

50 max



Kanpoko guneak



Klimaterpeko fatxadaren hedadurak arkupe batzuk sortzen ditu, estalkiaren eta parkearen artean mugatuta geratzen direnak, eta horiekin kanpoan toki ezin hobeak sortzen dira erakusketetarako eta lasai lan egiteko Urdaibaiko itsasadararekin komunikazio osoan.

Gainera, anfiteatro naturala zein berdegune zabalak, elementu ezin hobeak izan daitezke hainbat interes-gune sortzeko edo kanpoan esperientzia osagarri bat sortzeko, ikus-entzunezko ekipo mugikorrek lekualdatuz.

Leku paregabea bilerak, aurkezpen informalak, prentsaurrekoak, catering-ak eta abar egiteko.

Edukiera
Aforo
Capacity
Capacité

Baliabideak
Recursos
Resources
Moyens disponibles

+200
(max. 600)



BBK Klima: Espazioen alokairua eta lagapena



klima
bbk



Espazioa erabiltzeko aukerak eta edukierak

Koktel moduan




+200 pertsona
(max 600)



BBK Klima: Espazioen alokairua eta lagapena

klima
bbkΘ





Klima gela
korporatiboak

BBK Klima: Espazioen alokairua eta lagapena

Gune korporatiboak



BBK Klimak, gainera, hainbat gune korporatibo ditu, bilera puntualak, edo egonaldi ertainak eta luzeak ahalbidetzeko egokituak. Horrela, eragileen ekosisteman interesa duten enpresek coworking ereduko *workstation* edo lan-estazioak izan ditzakete, baita proiektu bakar bat kokatzeko eremu eksklusiboak ere.

Ezin hobea: bilerak, erretiro korporatiboak, egonaldi ertain eta luzeko bulegoak, coworking-a, etab.

Atikoa

Kokapena
Ubicación
Location
Emplacement

3

Edukiera
Aforo
Capacity
Capacité

7

Azalera
Superficie
Surface area
Superficie

65_{m2}

Baliabideak
Recursos
Resources
Moyens disponibles



klima
bbk



BBK Klima: Espazioen alokazioa eta lagapena



klima
bbk E

BBK Klima: Espazioen alokairua eta lagapena



Behe solairua

| Kokapena Ubicación Location Emplacement | Edukiera Aforo Capacity Capacité | Azalera Superficie Surface area Superficie | Baliabideak Recursos Resources Moyens disponibles |
|--|---|---|--|
| 1gela | 18 | 27 _{m2} | 📶 🖨️ 👤 |
| 2gela | 15 | 23 _{m2} | 📶 🖨️ 👤 |

Lehen solairua

| Kokapena Ubicación Location Emplacement | Edukiera Aforo Capacity Capacité | Azalera Superficie Surface area Superficie | Baliabideak Recursos Resources Moyens disponibles |
|--|---|---|--|
| 3gela | 20 | 30 _{m2} | 📶 🖨️ 👤 |
| 4gela | 19 | 28 _{m2} | 📶 🖨️ 👤 |



Zerbitzu osgarri erabilgarriak



Oinarrizko streaminga

BBK Klimak oinarrizko streaming-ekipo bat du. Ekitaldi edo jarduera batean hori erabiltzeko prestakuntza eta laguntza teknikoa emango dira.



Streaming osoa

Eskutatako streaminga konplexuagoa bada (alokatzen duen erakundeak ebaluatu beharko du), beste sistema bat alokatu ahal izango da gune hori alokatzen duen erakundeak erabakitzen duen ikus-entzunezko zerbitzu-enpresarekin.



Cateringa

Alokatutako tokian egingo den ekitaldiak edo jarduerak catering-zerbitzua behar badu, erakundearen esku jarriko da BBK Klima hornitzen duen catering-zerbitzuari buruzko informazioa. Erakundeak enpresa horrekin edo beste batekin kontratatu ahal izango du.



Kanpoko elementuak muntatzea eta desmuntatzea

Ekitaldiak BBK Kliman eskuragarri ez dauden elementuak behar baditu (beste agertoki batzuk, altzariak, argi-sistemak, etab.), enpresa errentariaren ardura izango da elementu horiek kontratatzea, muntatzea eta desmuntatzea.



Laguntzaileak

Ekitaldiak laguntzaile-zerbitzua behar badu, erakundearen esku jarriko da BBK hornitzen duen laguntzaile-zerbitzuari buruzko informazioa. Erakundeak enpresa hori edo beste bat kontratatu ahal izango du.

Ikonoen hiztegia



Wi-Fi gunea



Internet gunea kablez



Informazio-gunea



Gune tresnatua eta sonorizatua



Landaredun guneak / Naturalak



Gastrobar



Gune egokitua eta mikrofonatua



Catering-etarako prestatutako eremua



Monitorea / Led pantaila handia



Funtzio anitzeko inprimagailua



Anfiteatro naturala / Harmaila multifuntzionalak



Elkarrizketa guneak



Relax guneak



Idazmahaiak/ Hot Desks



















Aurkezpenetarako / Talde-bileretarako ekipamendua



Prestakuntza-guneak



Gune erabilgarrien laburpen-taula

| Gunea | Deskribapena | Erabilera gomendatuak | Sistema erabilgarriak |
|---|---|---|--|
| Klimaterpe: Erabilera anitzeko gunea | Eraikin argia eta balio anitzekoa da Urdaibairen bihotzean, eta gaitasun handia eta balliabide tekniko gaituak ditu. | Ekitaldi korporatiboak Hitzaldi-zikloak Aurkezpen ofizialak Etab. |       |
| Kanpoko guneak | Balio anitzeko eraikinaren eta gastobarraren ondoko naturagune zabala eta anfiteatroa, Urdaibaiko itsasadarrekin oso lotuta dagoena. | Bilerak Aurkezpen informalak Prensa-aurrekoak Catering-ak Etab. |     |
| Gune korporatiboak | BBK Klimaren eraikin nagusian ekipatutako aretoak, proiektuei eta enpresei leku egin ahal izango dietenak, bai noizean behin, bai egonaldi luzeagoetan. | Bilerak Erretiro korporatiboak Egonaldi ertain-luzeko bulegoak Co-working Etab. |       |

Informazioa eta erreserbak

Guneen erabilgarritasuna kontsultatzeko eta aurrekontu pertsonalizatua lortzeko, jarri harremanetan klima@bbk.eus helbide elektronikoaren bidez, kontsultaren arrazoia adieraziz.

Ekitaldietako taldea ahalik eta lasterren jarriko da zurekin harremanetan, eta elkarrekin pentsatuko dugu zein den zure ekitaldiaren leku-premietarako irtenbiderik onena.

klima
bbk[®]



Erregelamenduaren xedea

BBK Klima inpaktuko proiektua da, eta aliatu paregabea aldaketa-eragileen komunitate bat sortzeko eta elkarrekin etorkizuneko Bizkaia jasagarria marrazteko. Jasangarritasunarekin konprometitutako herritarrei eta erakundeei irekitako lekua da. Klima-n gauzatzen diren proiektu guztiak eta horiekien lotutako ekitaldi eta jarduera guztiak gizarteko eragileekin batera diseinatu eta sortzen dira, eta Bizkaiko gizartean eragin sozial positiboa izatea dute helburu.

Klima-ren proiektu eta jarduera propioak hartzeaz gain, BBK Klima guneak erabiltzeko aukera ematen diegu entitateei, erakundeei, elkartei, enpresei, gizarte-taldeei, ... izaera publiko edo pribatuko ekitaldi, jardunaldi edo tailerrak egin ditzaten.

Gure langile espezializatuak erakunde eskatzaileekin koordinatuko dira, aurreikusitako ekitaldiak behar bezala egiteko behar diren baliabide teknikoak eskaintzeko.

Erregelamendu honen xedea da zehaztapenak eta baldintzak arautzea, BBK Klima-ren guneak doako zein ordainpeko ekitaldi eta jardueretarako erabiltze aldera. Nolanahi ere, azken emaitza BBKren aurretiazko baimenaren mende egongo da.



klima
bbkΘ